



MARIA VICTORIA JOARISTI OLARIAGA AND., OIARTZUNGO UDALAREN IDAZKARI BEZALA.

ZIURTATZEN DUT: Udal Osoak 2010eko ekainaren 30ean egindako batzaraldian, ondorengo erabakia hartu zuela, beste batzuen artean:

“ALT-4 EREMUKO BI PARTZELA BESTERENTZEKO PROPOSAMENA.

Altzibar auzoko ALT-4 eremuan, ondoren adieraziko diren bi partzela lehiaketa irekia bitartez besterentzeko prozedura egin da:

- 5. partzela, P.A.U.aren arabera 3.541 m²koa.
- 12.A partzela, P.A.U.aren arabera 284,71 m²koa.

Proposamenak aurkezteko epea pasa ondoren Ogasun, Kontu Berezien eta Beste gaien Batzordeak aztertu du aurkeztutako proposamen bakarra eta ondorengo diktamena egin du:

“Kontratazio Mahaiak honen inguruan onartutako aktaren arabera: “ALT-4 OLALDE” H.I.A.ren Hirigintza Ekintzarako Egitarauko 5. eta 12.A partzelak CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari esleitzeko proposamena egitea, aurkeztu den proposamen bakarra izan delako eta onuragarria delako. Kontratuaren prezioa 95 €/m²koa, hau da, 363.442,45 €-koa izango da (BEZ kanpo) eta egikaritzeko epea 20 hilabetekoa eremuaren hirigintza prozesu guztia amaitu eta erakuntza baimenak jasotzen dituztenetik kontatzen hasita.”

Ogasun, Kontu Berezien eta Beste Gaien Batzordeak egindako diktamina ikusirik, Udal Osoak erabaki du ALT-4 OLALDE” H.I.A.ren Hirigintza Ekintzarako Egitarauko 5. eta 12.A partzelak CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. enpresari behin-behingo izaerarekin esleitzea, 95 €/m²ko, hau da, 363.442,45 €-ko prezioarekin (BEZ kanpo) eta 20 hilabeteko egikaritze-epearekin.

Behin-behineko esleipendunak 18.172,12 €ko behin betiko bermea ezarri eta plegu administratiboan 13. klausulan ezarritako bestelako dokumentazioa aurkeztu beharko du 15 egun balioduneko epean, esleipen hau kontratatzailearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aurreko epea igaro eta 10 egun balioduneko epean behin betiko esleipena egingo da, beti ere esleipendunak eskatutakoa aurkeztu badu.

Proposamen hau botaziora jarri eta aldeko sei boto (Etxeberria, Lekuona, Arrese, Viñas, Irastorza eta Bera jaun-andreenak), hiru abstentzio (OB taldekoenak) eta aurkako botorik gabe onartu da.”

Eta horrela jasota gera dadin dagokion espedientean, ziurtagiri hau ematen da, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikuluaaren arabera Alkate Jna.ren On-Iritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamarreko uztailaren batean.

